

Bularreko minbizian, erresistentziaren giltza SOX2 proteina dela argitu dute

CIC bioGUNEko ikertzaileek aurrerapauso garrantzitsua eman dute bularreko minbi-ziaren tratamenduarekiko erresistentzia ulertzeko. Hain zuzen ere, pazienteen herenak edo gehiagok ez diote ondo erantzuten ohiko tratamendu hormonalari, tamoxifenoaren bidezkoari. Orain, Galdakaoko ospitalearen eta Preteimagen klinikaren lankidetzarekin, erresistentziaren gakoa zein den argitu dute CIC bioGUNEko ikertzaileek.

MBO Molecular Medicine al- dizkarian argitaratu dute ikerketa, eta, haren arabera, SOX2 proteina da giltza. Izan ere, SOX2 genearen espresioa

handia denean, tamoxifenoa- rekiko sentikortasuna gutxitu egiten da, bai *in vivo*, bai *in vitro*. Eta alderantziz: SOX2 ge- nea isilaraziz gero, tamoxife- noarekiko sentikortasuna areagotu egiten da minbizi- zeluletan.

Beraz, erlazio zuzena dago SOX2 proteinaren eta erresis- tentziaren artean. Maria Vi- vanco ikerketa-buruaren esa- nean, “gure ikerketan parte hartu duten emakumeetan, tratamenduarekiko erresis- tenteak ziren guztietan ikusi dugu SOX2 proteina gehiago zutela tratamenduari ondo erantzun dietenak baino”. Gainera, minbizia birsortzen



Maria Vivanco ikerketa-buruaria. ARG.: CIC BIOGUNE.

duten zelulek iraun dezaten ere laguntzen du SOX2 prote- inak. Horrenbestez, SOX2 proteina biomarkatzaile ego- kia izan daitekeela uste du Vivancok: “Proteina-maila be- giratuta, tratamenduarekiko erantzuna aurreikusteko au- kera dugu”.

Erresistentzia ematen duen proteina identifikatzeaz gain,

nola eragiten duen ere ikusi dute. Nonbait, SOX2 protei- nak Wnt izeneko seinaleztapen-bidea aktibatzen du, eta horren ondorioz bihurtzen dira erresistente minbizi-ze- lulak. Emaitza hori bat dator Wnt seinaleztapen-bidearen akatsak minbiziarekin lotzen zirela erakusten zuten beste ikerketa batzuekin. ●

± 18 presta ezazu zure etorkizuna aldizkaria orain zure tablet eta sakelako telefonoan



Deskargatu
Unionline
aplikazioa

